

AUZOS AUZO

Altza

Larraitz Garmendia (Ifnoa.: 391267)

Altza eta Larratxo auzoetan egin beharreko trafikoko aldaketak datorren urteko aurrera egingo dira. Hartuko diren neurri hauek aspaldi eskatu zituzten Alta-Larratxo eta Herrerako auzo elkarteek. Indarrean jarri eta gero trafikoa asko hobetuko dela eta bizi kalitatea igokoz dela espero da. Neurriak hartu beharrekoak diren arren, ez da larritasun gehiegizko kontua oraingoz.

Aldaketak

Aldaketak Larratxoko ikastetxe publikoaren parean dagoen bide gurutzetik hasiko dira eta bertan norabide desberdineko bideak modu egokian jarriko dira. Horrez gain, aurikusita dago Larratxo pasealekua-ren peatonalizazioa, Txirrita pasealekua norabide bakarrekoa izatea eta 100 kotxeentzako aparkalekua eraikitzea.

Trafikoko aldaketak 1998an



Bidegurutzetik honetatik hasiko dira datorren urtean trafikoko aldaketak

Argazkia: Imanol Olegi

Herrera

Musean aritzeko aukera Euskal Giroa elkarteak

Euskal Giroa elkarteak mus txapelketa antolatu du. Hamazazpi garren urtea da elkarte honek mus txapelketa antolatzen duela eta beti bezala bikote mistoek parte har dezakete. Bikote bakoitzak 3.000 pezeta ordaindu beharko ditu.

325.000 pezeta banatuko dira saritan. Zortzi erregetara jokatu da eta azaroaren 3tik abenduaren 19ra bitartean jokatu dira mus partidak asteleheneetik ostegunera.

Izena emateko azken eguna gaur da, urriak 31. Izena emateko elkartera hurbildu ezin dutenek 270544 telefonora dei dezakete.

Odol ematea gaur ostirala

Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak gaur, urriak 31, odol bilketa egingo du auzoan San Luis parrokiak duen Lagun Bide egoitzan. Odol bilketa arratsaldeko 18.30etatik 20.30etara egingo da. Ahalik eta jende gehien etortzea komeni da.

corre[®]
corre
kirola oinetan

Easo 14 • Tfnoa.: 45 34 82

DISKAK

Azoka

DISKAK
BIDEOAK
TXUTXERIAK
OSAGARRIAK
LIBURUAK

San Martin kalea 13 • Antso Jakitunaren hiribidea